

IX URTEA
27. zenb.

1991 IRAILA - ABENDUA
525 pzta. - 26 libera



Eskapularioa
Diktaketa-teknika berriak
Irudi-eskemen erabilera
Loop-input
Irakurketa paraleloa
Toponimia euskararen irakaskuntzan
"Jalgi Hadi" metodoa
Mamuak eta mamutzarrak

ZUTABE

EUSKALDUNTZE - ALFABETATZEAREN ALDIZKARIA

Xedeak

ZUTABE euskalduntze-alfabetatzearen aldizkaria bi eremu horietan dihardutenei edo horiekin lanbidezko loturarik dutenei zuzendua dago, helduen euskara-irakasleei batipat. Lauhilabetekari honek ama-hizkuntza eta bigarren hizkuntzen irakaskuntzarekin zerikusirik duten zientzi arloak ditu berezko esparru (Psikolinguistika, Linguistika aplikatua, Andragogia/Pedagogia, Soziolinguistika) eta hizkuntzen irakaskuntzan/alfabetatze-gaietan teoria, teknika eta ikerketak ezagutaraztea helburu nagusi. **ZUTABE**k teoria aplikatua eta praktikaren arteko oreka lortu nahi du, arestian aipaturiko zientziak eta klaseko mundua uztartzeko zubi izan, aplikatua bait da argitalpenaren orientabidea. Ez da lan makala informazio aberatsa eta nork bere burua hobeto prestatzeko lantresnak eskaintzea eta ideiak elkartrukatzeko eztabaidagune ireki jori eta bizia izatea. Ba, horixe du **ZUTABE**k erronka. Amaitzeko, esan **ZUTABE**ren zuzendaritza ez dela artikuluetan agertzen diren iritzi eta ideien erantzule.

ZUTABEko lankidetzak

ZUTABEk gogo onez hartzen ditu helduen euskalduntze eta alfabetatzearen arazoari behar bezala aurre egiteko lagun dezaketen ekarpenak. Bertara bidalitako lanek, aldizkariaren orientabidea gogoan hartuz, zerikusi handia izan behar dute euskalduntze/alfabetatze gintzak egunero eta gertutik bizi dituzten gorabeherekin. Helduen euskalduntze- eta alfabetatze-eremuei buruzko ekarpenak nahiago izan arren, aldizkariak ez ditu inondik ere helduez beste gizataldeekin aritzen direnenak baztertzen, baldin eta beste egoera ezberdinetan aritzen direnentzat ere baliagarri eta interesgarriak gertatzen badira.

Lanak taxutzerakoan "Artikulugileentzako irizpideak" izeneko idazkia hartu behar da kontuan. Berau urteroko lehendabiziko alean emango da argitara.

ZUTABEk hemendik dei egiten die euskara-arloan lan egiten duten irakasle, hizkuntz eta hezkuntz teknikari, euskara-arduradun eta unibertsitate-alorreko ikertzaileei, aldizkarian esku har dezaten.

Posta

Editorial-gaien inguruko posta eta harpidetzari buruzkoa honako helbide hauetara igorriko da:

•Editorial-gaiak:

ZUTABE
Reina Regente 2-2.a
20003 Donostia
Tlf. (943)291811

•Harpidetza:

HABE
ZUTABE (Harpidetza)
Foruen pasealekua 1, 2.a
20005 Donostia
Tel.: 429120; Fax: 430162

Zuzendaritza

HABEren Glotodidaktika zerbitzua

Koordinazioa

Euskalduntze saila

Zuzendaritza batzordea

Iñaki Aranberri

Lagunarri Pedagogikoen saileko burua

Pello Esnal

Euskalduntze saileko burua

Gurutz Larrañaga

Alfabetatze saileko burua

Boni Urkizu

Euskara ataleko burua

Imanol Irizar

HABE Liburutegiko arduraduna

Koordinatzailea

Joanba Bergara

Euskalduntze saila

1991rako prezioak

Ale bakoitza: 525 pta.- 26 libera

Harpidetza: 1925 pta.

Diseinua

Azalak eta atalburuetako ikonoak:

Figueras Design

(Zedro plaza 2, 1. C

20016 - Donostia)

Inprimategia

Flash Composition, S.A. Ertzila kalea 11-1.a

48009 Bilbo

Legezko Gordailua

SS-550/89

© Autonomi Elkargoko Administrazio Orokorra,
HABE.

I.S.S.N. 0212-5714



Ale honetan

Aurkezpena

Gela irekia

- B. Barandiaran/M.* Ea nork ezagutzen duen ondoen su-koloreko
G. Larrinaga/ ilea zuen emakumea 3
M. K. Agirregabiria
Ane Fernandez Eskapularioa 7
Jessica J. Lockhart Diktaketa-teknika berriak 10

Ikasleak mintzo

- Herminio Nuin* Hiztegia ordenadorez birpasatzeko jokoa 13

Beste iturrietatik

- William Chuckney* Irudi-eskemen erabilera 17
Tessa Woodward Loop-input: trebatzaileentzako estrategia berria 21

Mindegi iraunkorra

- Joanba Bergara* Prestakuntzarako ihardunbideak-Irakurketa paraleloa 28

Euskararen kutxa

- Euskaltzaindia* Euskaltzaindiaren Bigarren Agiria Euskal Hitzei Buruz 33
Patxi Salaberri Toponimia, euskararen irakaskuntzaren lagungarri 35

Egilearen eskutik

- J.Antonio Mujika* "Jalgi Hadi" metodoaren inguruan 41

Irudibidez

Joanba Bergara Mamuak eta mamutzarrak 49

Ikerketak

B. Mathinet/ G.Rach/ J. Wolff/ P.Zimmermann Leher egin gabe ikasi? Alemanezko ikastaro
sugestopediko esperimentalak 53

Kanpainak

Mójate este verano—Busti zaitez euskararekin uda honetan 65
Faltas tú este curso—Hemen zu zeu 67

Gure mundutxoak

- HABE argitalpenak 69
- Beste argitalpenak 69
- Bisitak 70
- Kongresuak, erakusketak... 71

Liburuak eta aldizkariak

- *Liburuak/ artikulak* 73

Maria Jesus Espi *Histoire des méthodologies de l'enseignement
des langues* (C. Puren) 73

Maria Jesus Espi *The principles of language study* (H.E. Palmer) 73

- *Aldizkariak: kanpokoak eta hemen bertokoak* 74

Imanol Irizar *Language Learning - A Journal of Applied Linguistics* 74

Imanol Irizar Aurkibideak 74

Imanol Irizar • *HABE-Liburutegia* 75

Aurkibideak: aldizkariko 25, 26 eta 27.zenbakiak 80

ZUTABE

EUSKALDUNTZE - ALFABETATZEAREN ALDIZKARIA



HARPIDETZA-ORRIA

Izen-deiturak:

Kalea:

Zenbakia:

Herria:

Probintzia:

ZUTABE aldizkaria jaso nahi dut etxean. (Urtean bost ale: 1.925 pezeta).
Honela ordainduko dut: Kontu korrante bidez.

Hauxe da: Bankua edo Aurrezki-Kutxa:

Sukurtsala:

Zenbakia:

ZUTABE aldizkaria
Foruen pasealekua 1, 2.a
20005 DONOSTIA

Helbide honetara bidali behar da:
ZUTABE aldizkaria
Foruen pasealekua 1, 2.a
20005 DONOSTIA



Aurkezpena

Aurtengo azken alea duzu eskuetan, irakurle. Egunak joan, egunak etorri... eta, konturatu gabe ia, urtearen azken txanpara iritsiak gara dagoeneko. Balantzeak egiteko garaia, beraz, eta egitasmo berriak zedarritzekoa. Urte-amaiera ona opa dizu ZUTABEk. Urte berria oparoa izango ahal da.

Eta luze gabe aurkez dezagun 27. ale honen mamia.

- *Gela irekia.*— Hiru artikulu aurkituko dituzu *Gela irekian* oraingoan. Dakizunez, ikasgelan probetxuzko gertatu diren ideia praktikoak aurkeztu nahi dira bertan. *Ea nork ezagutzen duen ondoen su-koloreko ilea zuen emakumea* 9. eta 10. urratsetako ikasleei zuzenduriko jokoak aipatu urrats horietan landutakoa atsegin gerta daitekeen moduan birpasatu eta neurtzea du xede. Bigarren artikuluak *eskapularioa* deritzan teknika azaltzen du. Beronen bidez, ulermen-mailako ezagutzak ekoizpenekora bultzatu nahi dira. Hirugarrena, aldiz, *diktaketa* teknika zaharrari dago emana. Ikutu zenbait emanez gero, bada teknika horren bitartez eskura daitekeen xede garrantzizkorik.
- *Ikasleak mintzo.*— Ikasleak ikasprozesuan izandako esperientziak islatu nahi ditu sail honek. Oraingoan hiztegia ordenadorez birpasatzeko joko bati buruzko xehetasunak ematen dizkigu Nuin euskara-ikasleak.
- *Beste iturrietatik.*— Irudi-eskemen erabilera du aztergai Chuckney-k bere artikuluan. Teknika hori oso lagungarri gerta dakieke ikasleei testuak ulertu eta berreraikitzerakoan. Bigarren artikulua loop-input deituriko teknika aurkezteari eskaini zaio. Teknika honen bidez, edukiak transmisio-moduan islatu nahi dira, hizkuntz irakasleen prestakuntza sendoagoa lortu nahian.
- *Mindegi iraunkorra.*— Aurreko artikulua bezala, Bergararenak ere irakasleen prestakuntzarako ihardunbideen eremua ikertu nahi du. Anitz bait dira inputa edo edukiak lantzeko prozedurak irakasleen prestakuntzarako saioetan. Mindegi honek *irakurketa paraleloa* gertutik ezagutzeko egokiera eman nahi du, prozedura horrekin aprobak egiteko moduak azalduz.
- *Euskararen kutxa.*— Hogeitahamabi urte igaro dira Euskaltzaindiak euskal hitzei buruz lehen agiria eman zuenetik. Aurten, hogeitahamabi urteren buruan, berriro kaleratu du erakunde honek euskal hitzei buruz beste agiri bat. Lehenengoa *garbizalekeria* gaitzaren kontrakoa zen; lehengo gaitzaren aurkakoa bigarrena, mordoilokeria alegia. Gero, toponimiak

euskararen irakaskuntzan izan behar lukeen garrantzia azpimarratu eta klasean aplikatzeko ideia zenbait ematen ditu Salaberrik bigarren artikuluan.

- *Egilearen eskutik.*— Euskara irakasteko metodogintzan eginiko bidea islatu nahi du ZUTABEk gai honi artikulua-sorta eskainiz, metodo ezberdinen sorreran eginahalean aritutako pertsonen eskutik islatu ere. Oraingo honetan, “Jalgi Hadi” metodoaren inguruko zertzeladak ematen dizkigu J. Antonio Mujikak.
- *Irudibidez.*— Giza harremanetan gertatu ohi den gorabehera edo garrantzizko oker zenbait du hausnargai Bergarak *Mamuak eta mamutzarrak* artikuluan, baita horien sendabideak ere.
- *Ikerketak.*— Sail honetan, ikerketa txiki batekin batera, sugestopediaz baliatuz alemana irakasteko ikastaro piloto baten berri ematen zaigu. Egileek sugestopedia euskararen irakaskuntzan erabiltzeko iradokitzen dute bertan.
- *Kanpainak.*— Gure artean euskararen alde egindako kanpainak jasotzeko saila, berauetan erabilitako foileto, pegatina eta abarren erreproduktzioak eskainiz. Oraingoan Gipuzkoako Udal Euskaltegiek eraturiko azken bi kanpainaren berriak datoz.

Gure mundutxoa eta Liburuak eta aldizkariak sailez gain, aurreko urteetako ohiturari jarraiki, aldizkariko 25, 26 eta 27. zenbakien aurkibideak eskaintzen dira egileka eta gaika.

Bukatzeko esan, ZUTABEk zure arazo, kezka eta interesei helduko badie, zure partaidetza behar-beharrezkoa duela. Zeure galdera, kezka eta gehien interesatzen zaizkizun gaien berri emaguzu, arren. Aldez aurretik, mila esker.